

**2004KO MARTXOAREN HEMEZORTZIAN UDAL
PLENOAK EGINDAKO EZOHIZKO BATZARRALDIKO
AKTA.-**

Zumaiako hirian, bi mila eta laugarren urteko martxoaren hemezortzian, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ezohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU Jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE Anderea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA Jauna.
Andoni ETXANIZ OSA Jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA Jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO Jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN Jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO Anderea.
Cristina FORCADA UNANUE Anderea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

Bilkurara herritarrak etortzen dira, Zumaiako Herri eskolako ordezkariak.

**1.- E.A.E-N GAINBEHERA ETORRITAKO HIRIALDEAK
GIZARTE ETA EKONOMIA MAILAN BIZIBERRITZEKO ETA
LURRALDE TASUNARI BEGIRA BERPIZTEKO ERABATEKO
EGITARAUEI LAGUNTZEKO 2004KO DEIALDIAREKIN BAT,
ESKAERA LUZATZEKO AKORDIOA ONARTZEA, (IZARTU
EGITASMOA).**

Joan den 2.004ko urtarrilaren 22an, argitaratu zen, EHAAn Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren Agindua, EAEn gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egitarauari laguntzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 16ko 306/2003 Dekretuaren jarduera-esparruan laguntzak emateko zena.

Aipatu Dekretua eta Agindua aztertutik, eta kontuan izanik Zumaiako Udalak dirulaguntzak eskatzeko ezarritako ukan beharrak betetzen dituela, Udal teknikariek Hirigintza Batzordeko Lehendakariak eskaturik, agiria hau prestatu dute: " ZUMAIA 2008, ZUMAIAKO UDALERRIAREN OSOTASUNEAN BARNERATZEKO ODIETAKO ERREBALAREN BERRESKURATZEA ", Hirigintza Batzordeak 2.004-03-15ean onartua, Udal Batza Osoari onarpenerako luzatzeko eta eskaeraren deialdiari eransteko.

Guzti hau kontuan izanik, bozketa egiten da eta gorporaziokideen eskubidezko eta egitatezko hamahiru kideen aho batasunean ,

ERABAKI DA:

LEHENENGOA: IZARTU II EGITASMOAN eskaera aurkeztea onartzea, honoko agiri hau erantsiaz: " ZUMAIA 2008, ZUMAIAKO UDALERRIAREN OSOTASUNEAN BARNERATZEKO ODIETAKO ERREBALAREN BERRESKURATZEA ".

BIGARRENGOA: IZARTU II PROGRAMAN aurkezteko aurrikusiriko inbertsioa 8.996.494,84 €(1.496.890.650 pts) da, eskatzen den kopurua berriz, 6.747.371, 13 €(1.122.668.092,82 pts) direlarik.

HIRUGARRENGOA: Proiektuaren osotasunaren garapena eta exekuzioa helburu soziala lurzoru erresidentzial eta industrialaren duen Udal Sozietate Publikoa den Zumaia Lantzen S.A-rena izango da.

2. – HIRU URTETIK BEHERAKOENTZAKO HEZKUNTZA ETA LAGUNTZA ARLOKO HAUR-ESKOLEN KUDEAKETARAKO ERATUTAKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN SARTZEA.

Alkateak sarrera gisa zera dio, onarpenera luzatzen den proposamenaren helburua gaur egun egoera alegal batean funtzionatzen duen urtebeteko haurren gelari irtenbide itxuroso bat ematea dela Udala haurreskolak partzuergoan sartuaz. Arazo hau aurreko legealdi bukaeratik datorrena da eta nahiz eta zalantza asko izan gela honek iraun dezan irtenbide bakarra dela iruditzen zaigu.

Erabaki honek partzuergoan sartzeko estatutoak onartzeaz gain hitzarmen bat sinatzea suposatzen du. Urtebeteko gela irailtik aurrera jarriko litzateke martxan. Matrikulazio kanpaina, Udalari dagokion zeregina izango da. Langilegoaren kontratazio matrikula kopuruaren arabera izango da eta beti ere hautaketa partzuergoaren ardura izango da aurrez finkaturiko irizpideen arabera egin beharko dutelarik.

Zumaian egoera bitxi baten aurrean gaude, ikastetxe pribatuak zerbitzu hori eskaintzen bait du, baina dexentez merkeago.

Beraz zer demanda dagoen aztertu behar da, gure ezaugarri beretsuak dituzten herrietan zer gertatzen den ikusi, eta noraino iritsi nahi dugun baloratu.

Gauza asko daude ikusteko eta erabakitzeko momentuz urtebeteko gela normalizatzea lortuko dugu.

Hezkuntza batzorde buruak zera gaineratzen du gauzak argituaz doazen neurrian joango garela erabakiak hartzen. Momentuz urtebeteko haurren gela hori ez ixtea lortuko dugu. Gerora ikusiko dugu zenbaiterainoko arrakasta duen, zein eskaera dagoen herrian.

Kontsortzioak eskaerari buruzko ikerketa bat egingo zuela hitza eman zigun.

Hastapenetan, Ikastetxe berdinean bi modulo ezberdin izango ditugu, bata partzuergoaren esku eta bestea hezkuntzaren esku. Egunerokotasunari begira agian deserosoa izan daiteke, baina ez dago besterik.

Izustarri taldeko Joseba Josu zinegotziak zera aipatzen du partzuergoko estatutoen arabera Udalek erabakitzeko duten ahalmena murrizta dela. Eusko Jaurlearitzak 2/3en botu kopurua duen bitartean kontsorziaturiko Udalek 1/3 besterik ez. Hala ere partzuergoan sartzearen alde gaude.

Alkateak baietz erantzuten dio, hori horrela dela. Baina kostuaren % 60-az ere partzuergoa egiten dela kargu eta gainerako % 40-az udalak. Programa oso ona da, baina diru asko behar da.

IZUSTARRI Taldetik Batzordean Zumaian zerbitzua eskaintzen duten bi ikastetxeen prezioen ezberdintasun nabarmenaz hitzegin zela adierazten da. Publikoan 180 € hilabeteko eta Pribatuan 45 € hilabeteko. Zerbitzua hein batean ezberdina dela ere gaineratzen da baina horrela izanda ere ezin da justifikatu. Nahiz eta aurten gela bakarra jarriko den martxan berez programa 0-3 urte bitartekoentzat dela adierazten dute. Eta ea helburua etorkizunean 3 gela sortzea den.

EAJtik Zumaia berezia dela erantzuten da. Ikastetxe pribatuek beste malgutasun bat eskaintzen dutela diote. Konbenioak, soldatak ... ez daukate publikoek dituzten loturak.

Programa 0-3 urte bitartekoentzat den neurrian, normala litzateke, hiru gela sortzea, bata 0-1 urtekoa, beste bat 1-2 urtekoa eta beste bat 2-3 urtekoa. Baina aurrez azterketa bat egin behar da eskaintza horrek zein eskari izango duen ikusteko.

PSOE-tik gai honi buruzko agiriak berandu iritsi zaizkiela adierazten dute. Eta bide batez 0-3 urte bitarteko eskolaren alde azaltzen dira eta urtebeteko gela mantentzearen beharra azpimarratzen dute. Eraikuntza bat egin beharra ere bidezko ikusten dute.

EAJ-tik zera erantzuten da ez dakigula zein eskari izango dugun. Ikerketa bat egin zezaten eskatu zitzaie, baina ez dugula erantzunik jaso. Eskuaratean darabilzkigun datuak esanguratsuak direla, baina ez behin betikoak. Ikerketa horrek datuak emango dizkigu zein behar ditugun ezagutzeko. Zenbait gela egokitu, zenbat leku behar dugun, zein ezaugarri bete behar dituen Beti ere kontuan izanik Zumaian beste zentru batek eskaintza hori baduela baldintza ekonomiko hobeagotan.

Publikotik hitza eskatzen dute eta Zumaiako Herri Eskolako Zuzendariak hitzaren erabileran azaltzen du Herri Eskolak Alkatezari idatzi bat luzatu ziola eskolaren kezkak eta nahiak azalduaz. Elkarlanean jarraitzeko asmoz, gure idatzia zertan den jakin nahi dugu.

Alkateak idatzia irakurtzen du:

Udal horrek Haurreskola Partzuergoan sartzeko erabakia hartu duela eta, honako hau adierazi nahi dizuegu Zumaiako Herri Eskolatik:

.-Zumaiako Herri Eskola sortu zenetik 0-3 zikloa publikoaren beharra aurreikusi zuela eta horregatik Partzuergoan sartzearen alde azaldu dela hasiera hasieratik eta bultzau ere egin duela.

.- Zumaiako beharrei erantzun nahain, ZHEk azkenengo sei urte hauetan, bat urteko gela irekita mantendu duela.

.- Oraingo hau, aukera egokia iruditzen zaigula, behar bezalako Haur Eskola Publikoa herriari eskeintzeko.

Gai honen inguruan, ZHEk baditu, ordea, hainbat kezka eta bestalde zenbait zehaztapen beharra ere. Honakoak, besteak beste:

.- Eraikin konpartituan egoteak zer ondorio ekarriko dizkion ikastetxeari.

.- Epeen kontua, eraikuntza berria noiz ?, non ?, zenbat talde ? ...

.- Nolako zerbitzua emango den ...

.- Matrikulazio kanpaina ...

.- ...

Hau guztia aztertzeko komenigarria iruditzen zaigu, gure partaidetza izango duen bilgune bat eratzea.

Gure eskera kontuan hartuko duzuelakoan, erantzunaren zain gelditzen gara.

Adeitasunez, Lubaki guraso elkarteko Lehendakaria, Zumaiako Institutko zuzendaria, Zumaiako Herri Eskolako Zuzendaria.

EAJ-tik adierazten da partzuergoan sartu diren Udalen gehiengoa biztanle kopuru txikikoak direla. Eta eskola baten beharrak ezberdinak direla haur kopuru txikia edo handia duten herrietan.

Hezkuntza sailak Zumaiako urtebeteko gela ixteko erabakia tinkoa zela adierazi zigunean, partzuergoan sartzera behartu gintuzten, beste irteerarik ez geneukan.

Gure kezka guztiak adierazi genizkien zenbait gela beharko ziren, eraikin berria egitekotan non egin, eraikina konpartitzeak erakar ditzazken arazoak ...

Zumaiako Herri Eskolako Zuzendariak asko hitzegin dela dio, baina aurrerantzean eman behar diren pausoak finkatzea komeni dela. Guk gai hau aztertzeko batzorde berezi bat eratzea proposatzen dugu.

Alkatetzatik zera erantzuten da, orain artean gai hauek denak Hezkutza Batzordean aztertu direla, eta inoiz ez dugula oztoporik jarri hori horrela izan dadin. Gainera harremana nahiko normala izan dugula ere esan daiteke.

Publikotik zera adierazten da:

.- 0-3ko haurreskolaren gaian ikastetxe publikoa eta ikastetxe pribatua lehia bizian gaudela. Batak eta besteak Zerbitzua eskaintzeko duten prezioen aldea izugarria da. Ulertezina gertatzeko adinakoa.

.- 0-3ko haurreskolen eskaintza publikoa eta dohaina izan beharko luke. Lehenengo aldia izango da eskaintza publikoa pribatua baino garestiagoa dela.

.- Prezioak ez direla txarrak zerbitzu ona eskaintzen bada. Propaganda ona egin behar da. Azken finean apustu bat da.

EAJ-tik zerbitzua dohanik eskaintzeko herritarrek ordaintzen dituzten zergak igo egin beharko liratekela aipatzen da.

Hala eta guztiz ere, gaineratzen da, Plenora ekarri den proposamena partzuergoan sartzekoa dela, urtebeteko gela ez ixte arren. Eta prezioak kontsorzioak finkatzen dituela. Herri guztietan formula ona dena Zumaian ez. Prezioak onak edo txarrak dira beste batzuekin alderatu ezgero.

Gaia Batzordean aztertu da. Udalak partzuergoan sartu behar duen edo ez erabaki behar du.

Irtenbide bat aurkitu nahian gabiltz, ez gara atea ixten ari, aurrerapausoak emanaz baizik.

PSOE-tik zera adierazten da zerbitzu publiko on bat eta dohainik eskaini behar dela, ordaintzen diren zergak alde batera utziaz.

Partzuergoan sartzera behartzen gaituzte urtebeteko gela ez dezaten itxi. Beste aukerarik ez dugu. Eskatu behar zaie lehen bait lehen aurkeztu dezatela hitzeman duten azterketa.

Partzuergoa udalerrri txientzat ona den heinean Udalerrri handiagoentzat ez.

Ulertzeko zaila dena ikastetxe pribatuak publikoak baino merkeago zerbitzua eskaintzea da.

IU-EB-tik, PSOE-k egin dituen adierazpenekin bat datorrela adierazten da.

Udal Batza Osoak, eskubidezko hamahiru kideetatik, bilerara bertaraturiko hamahiru kideen aho batasunean,

ERABAKI DU

1.- Hiru urtetik beherako haur eskolen kudeaketarako eta hauei zuzendutako asistentzi eta hezkuntza-arretarako «Haurreskolak» partzuergoa osatzeko hitzarmena, estatutuak eta baldintza partikularren eranskina hasiera batez onartzea.

2.- Izapidatutako espedientea hogeita hamar laneguneko epean jendaurrean jaten da, nahi duen edonork espedientea aztertu eta egoki deritzon erreklamazioak aurkeztu ahal ditzan.

Erreklamazioak, udalaren idazkaritzan eta bulegoa irikita dagoen orduetan aurkeztuko dira, Udalbatzaren eskuduntza izanik hauek aztertu eta erabakitzea.

Ohartarrazten da, epe horretan inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasiera batez onartutako agiriak behin betiko izaeraz onartutzat joko direla, eta aldi berean Zumaiako Udala partzuergo horren partaide bilakatuko dela.

3.- UROLA KOSTAKO UDAL MANKOMUNITATEKO ESTATUTOEN ALDAKETA.

Lehendakariak hitza hartu eta adierazi du Estatutuak aldatzearen helburua idazkari-kontuhartzailearen lanpostua sortu eta betetzea dela, horren bidez kargu horretan dagoen hutsunea osatzeko.

Beraz, hauxe da proposatzen den Urola Kostako Udal Elkarteko Estatutuen aldaketa:

Indarrean dagoen 10. artikulua honakoa dio:

“10. artikulua.

Batzorde Exekutiboak, Idazkari bat eta Kontuhartzaile bat edota Idazkari-Kontuhartzaile bat izendatuko ditu, kargu horiei dagozkien berezko eskurantzekin.

Izendapena preferenteki Udalerri kideetan kargu berdina betetzen duten tutilarretara joango da.

Jatorrizko Udalean bere funtzioak utziz gero, ez du kargu hauetariko inork bereganatuko Mankomunitatean enplegu ezta iraupeneko eskubiderik.

Halaber, Batzar Orokorrak zehaztuko du Gordailuzain bezala ihardungo den pertsona, Mankomunitateko kide bat izan daitekeelarik. Kasu horretan Mankomunitateko gainerako kideek haren kudeaketaz solidarioki erantzungo dute.”

Proposatzen den 10. aldaketak ondorengo dio:

“10. artikulua.

Batzorde Exekutiboak, Idazkari bat eta Kontuhartzaile bat edota Idazkari-Kontuhartzaile bat izendatuko ditu, kargu horiei dagozkien berezko eskurantzekin. Izendapena preferenteki Udalerri kideetan kargu berdina betetzen duten tutilarretara joango da.

“Kargu hori aurreko pasarteak adierazitako moduan bete ezin baldin bada, Batzorde Exekutiboak Funtzio Publikoaren araubideak aurreikusten dituen bideetakoren bat erabili ahal izango du horretarako”.

Halaber, Batzar Orokorrak zehaztuko du Gordailuzain bezala ihardungo den pertsona, Mankomunitateko kide bat izan daitekeelarik. Kasu horretan Mankomunitateko gainerako kideek haren kudeaketaz solidarioki erantzungo dute”.

Bozketa eginik, aho batez, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin, ELOL-ko 47,3,b) art-an xedatutakoaren arabera, ERABAKI DA:

Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak 2.003ko abenduak 17ko ohiko osoko bilkuran, Udal Elkarteko Estatutuen 10. Artikuluaen aldaketa erabakia, berrestea.

4- ALDE ZAHARREKO FATXADAK BERRITZEKO DIRULAGUNTZAK ETA JABARI PUBLIKOA TERRAZEN BIDEZ OKUPATZEKO ORDENANTZEN HASERAKO ONARPENA.-

Hirigintza Batzordeburuak, batzordean landu diren bi ordenantza direla adierazten du haserako onarpema eman eta jendaurreko agerraldi epea zabaltzea dagokigularik.

Ordenantzen edukiari buruzko argibideak ematen dira:

.- Fatxadak konpontzeko dirulaguntzen ordenantza arautzailea I. Eranskinaren zerrendan jasotako fatxada eta eraikinetan aplikatuko da eta ondorengo hauek barneratzen ditu:

- Udalak babestutako eremuaren barruan gelditzen diren eraikinak eta Zumaiako Alde Zaharreko Birgaitze Arearen parte direnak.
- Zumaiako Arau Subsidiarioen katalogoan jasotako udalaren babeseko eraikinak.
- Interes historikoa, arkitektonikoa eta ingurumenekoa duten San Telmo, Odieta eta San Jose kaleetako eraikinak.

Eskaera eraikinaren jabeak aurkeztu behar du.

.- Bide Publikoan Terrazak eta mahai tokiak jartzeko baldintzak arautzen dituen Ordenantzak besteak beste jasotzen du: Altzarien diseinua, baimendutako materialak egurrezkoak eta zumezkoak, Orduategiak ...

IZUSTARRI-tik zera dio baimenaren titularrak eratu behar duen fidantzaren kopurua denentzat berdina dela ez duela Ordenantza Fiskaletakoproporziorik gordetzen ez eta ere ordaindu beharreko isunen artean ez dela proportziorik gordetzen, Ordenantza fiskaletan gertatzen den eran.

EAJ-tik zera erantzuten zaio, Ordenantzak lantzerakoan eredu ezberdinen artean moldaketa bat egin dela eta hortik sortu dela kopuru hori. Baina agian posible dela arrazoi izatea, Ordenantzetan opututako m2 bakoitzegatik ordaintzen da.

Bozketa eginik, Udalbatza legez eta egitez osatzen duten hamahiru udal bazkideen adostasunean,

ERABAKI DA

1.- Zumaiako ondare historiko, arkitektoniko eta ingurumeneko fatxaden birgaitze integralerako obrak egiteko udal laguntzen ordenantza arautzaileari eta Bide Publikoan Terrazak eta mahai tokiak jartzeko baldintzak arautzen dituen Udal Ordenantza haserako izaeraz onartzea.

2.- Gutxienerako 30 egunerako jendareko agerraldi epe bat zabaldu eta interesatueri audientzia eman, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunerik zenbatzen hasita, erreklamazio eta murtziloak aurkez daitezzen helburuz.

3.- Erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz behin betiko onartutzat hartuko da erabaki hau.

5.- UDALTALDE 21.-

Alkateak zera dio, Tokiko Agenda 21 proiektua diseinatzeko helburuz, Udaltalde 21 Urola Kosta Proiektua eratu dela.

Urola Kostan bi herri zeuden: Aizarnazabal eta Zestoa Agenda 21 gabe. Aldiz Zarautz osos aurreratua dago.

Lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea proposatzen da IHOBE Elkarte Publikoa, Foru Aldundia, Mankomunitatea eta beraz osatzen duten herrien artean programa hau gauzatzeko.

Kostuak era honetan ordainduko dira: Eusko Jaurlaritzak % 50, Foru Aldundiak % 30 eta Udalerik gainerako % 20. Zarautzek tarifa finko bat ordainduko du.

Herri bakoitzean ingurugiro foro batzuk sortuko dira. Azken finean finkatutako helburu batzuk lortzeko.

PSOE eta **EAJ**-koen artean galdera erantzun batzuk trukatzeko dira. Hala nola Zumaiak Agenda 21 bazuen galderari erantzuten zaio zerbait landu zela, baina seriozki ezetz. Gainerantzeko herriekin egingo dugu. Egitasmoa handinahaikoa dela adierazten da eta gai asko barneratzen dituela hala nola, energia, zoruak, kutsadura ...

Bozketaz eginik, Udaltaldea legeaz eta egitez osatzen duten hamahiru udal bazkideen adostasunean,

ERABAKI DA

1.- IHOBE elkarte publikoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Urola Kostako Udalerik Elkartearen eta Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orrio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiako Udalerik arteko lankidetzaz hitzarmena

onartzea, Udaltalde 21 Urola Kosta Proiektua eratu eta aurrera eramateko: Tokiko Agenda 21 proiektua diseinatzeko fasea.

2.- Alkate-Lehendakariari gaitasuna ematea aipatu hitzarmena izenpetu dezan Zumaiako Udalaren izenean.

6.- ZUMAIA LANTZEN, S.A.- KAPITAL GEHIKUNTZA: (HIGIEZINEN EKARPEN BIDEZ). (UDAL BATZA, BATZAR OROKORREAN ERATZEN DA.)

Bozketa eginik, Zumaia Lantzen S.A-ko Batzar Orokorra osatzen duten hamahiru udal bazkideen adostasunean,

ERABAKI DA

1.- Zumaiako Udala bazkide bakarra den “ZUMAIA LANTZEN S.A.” entitatearen Gizarte Kapitala gehitzea EHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU MILA ETA LAUREHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOTAN (194.441,53), **hogeita hamabi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru akzio nominal berrien** jaulkipenaren bidez, serie bakarrekokoak eta koerlatiboki HIRUREHUN ETA BERROGEITA BOST MILA ETA BATETIK HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRURA arteko zenbakiekin, bi zenbaki hauek barne, akzio bakoitzaren balio nominala sei euro eta zentimo batekoa izanik **(6,01 €)**.

2.- Zumaiako Udalak izenpetzea eta ordaintzea gehitutako kapital guztia, Zumaiako Udalaren jabetzako partizipazio zatiezinen ekarpena eginaz, Zumaiako AA.SS.etako “U.E. 1 PUNTANUETA” Exekuzio Unitatearen R3 LUR-ZATIAREN EHUNENKO BERROGEITA HAMABI OSO ETA SEI EHUNENKOREKIN, Azpeitiko Jabetza Erregistroan ondorengo datuekin jasotakoa: Zumaiako 1.812 Liburukia; 156 Liburua; 1 Orrialdea; 8.845 Finka.

3.- Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola, Udal honetako alkate-lehendakariari, ahalmena ematea lehen adierazitako lur-zatiko partizipazioaren titulartasunaren ekarpenak egiteko Zumaiako

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortziak eta hogeitamar minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK